



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

**31866-Jauntsarats
(Nafarroa)**

Basaburuko Udalean 2024ko Irailaren 9an arratsaldeko 18:00etan ondoren zehazten direnak biltzen dira Ihabengo aisialdi gunean komun lehorra jartzeko obraren esleipena irekitzeko.

Parte hartzaileak; Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Camino Jaso eta Irati Lure, Basaburuko Udaleko idazkaria den Lucia Belokiuren laguntzarekin.

Gai zerrendan dagoen gai bakarraren azterketarekin hasten dira bildutakoak:

Ihabengo aisialdi gunean komun lehorra jartzeko obraren esleipena. 2 gutun azalaren balorazioa eta 3. gutun azalaren irekiera

Irailaren 2an 2. Gutun azala ireki ondoren proiektua egin duen teknikariak, hots Camino Jasok aurkeztutako empresa bakarraren memoria, obren planifikazioa eta ingurugiro neurriak baloratu ditu eta horren inguruan egindako txostena aztertzen dute bildutakoak

Txostenaen jasotzen da aurkeztuko memorian oso ongi deskribatzen duela obra eta komunaren ezaugarriak. Obraren planifikazioa aldiz ez da oso zabala baina bai egokitzen dela egin behar diren lanei.

Azkenik ingurugiro neurrien inguruan balorazio txostenak adierazten du ingurugiroan ez kalterik izateko neurri guztiak hartuko direla eta ontzat ematen dira guztiak

Hortaz osotara 20 puntuko balorazioa ematen zaio Saneseco SCCL empresak aurkeztutako memoria, obraren planifikazioa eta ingurugiro neurriei, 10 puntu memoriari eta beste 10 ingurugiro neurriei hurrenez hurren.

Ondoren 3 gutun azalaren irekiera egiten dute bildutakoek PLENA plataformaren bidez,.

Bertan irizpide kuantitatiboak baloratzeko dokumentazioa aurkeztu du enpresak, alde batetik proposamen ekonomikoa, obraren berme epearen luzapena eta azkenik, obra egiteko epearen murrizketa.

Bildutakoek aurkeztuako dokumentazioa aztertu ondoren proiektua egin duten arkitektoei helaraztea erabaki dute haiek baloraketa egiteko.

- Proposamen ekonomikoa, obraren aurrekontua BEZ kanpo pleguaren arabera 35.040 eurokoa da, aldiz Saneseco SCCL empresak aurkeztutako aurrekontua 33.990 eurokoa da BEZ kanpo, hortaz empresa bakarra izanik. 30 puntu jasotzen ditu atal honetan.
- Obraren berme epearen luzapena. Empresak adierazten du ez duela berme epea luzatuko, hortaz 0 puntu jasotzeko ditu atal honetan.

Bukatzeko obra egiteko epean murrizketa proposamenaren inguruan, Saneseco SCCL empresak dio ez duela epea murriztuko, proiektuan aurreikusitako epean egingo dela. Hortaz atal honetan ere 0 puntu jasotzen ditu empresak. Osotara hortaz, 2. Gutun azalaren balorazioan 20 puntu jasotzen ditu eta 3 gutun azalaenean 30 puntu. Osotara hots 50 puntuko balorazioa onartzen diote bildutakoek Saneseco SCCL empresari.

Obraren esleipena Minverva plataforman baimena jaso ondoren egingo da batzarrean.

Eta gai gehiagorik ez dagoenez bilera amaitutzat ematen dute bildutakoek, eguardiko 18:30etan, ni idazkarian naizen aldetik hala ziurtatzen dut.

Izp: Santos Etxegia Oronoz

Izp: Xabier Azpiroz

Izp: Irati Lure

Izp; Camino Jaso